

XII

AZKEN ONDORIOA

Laburtu dezadan orain, paragrafo batzuetan, aurreko orrialdeetako sarrera gisako deskribapenean jorratutako arloa.

Kasuzko gizarte-langintzaren adibideek erakusten dute bezero horien gizarte-harremanak hobetu daitezkeela eta haien nortasuna gara daitezkeela, zuzeneko eta zeharkako informazioak baliatuz eta bezeroen gogamenari zuzen eta zeharka eraginez. Horrek eskatzen du norbanakoaren berezko izaera eta inguruneak harengan duen eragina ezagutzea. Kasu-langileak bezeroaren gizarte-testuingurua eta testuinguru pertsonala ezagutzea lortzen ez badu, gehienetan ezin izaten da doikuntza iraunkorrik egin. Kontuan izan beharra dago, haatik, diagnostikoa egiteko prozesuak tratamenduaren prozesuekin konbinatzen direla eta ez dagoela lerro zehatz bat marrazterik batzuen eta besteen artean.

Gizarte-langintzaren jardunak oso eremu zabala du: hasi zerbitzu apalenetatik —maitekortasuna, pazientzia eta abegikortasun pertsonala gidari direla— eta buka neurri gogorretan —hala nola ingurunea aldatzea, baliabideak antolatzea (aurrez halakorik izan ez arren), eta aspaldi hautsitako lokarriak berriro lotzea—. Ofizialkeria saihestu behar da. Kasu-langintzako jokabide arrakastatsuenak adore ematea eta estimulatzea dira, bezeroak plan guztietan ahalik eta gehien parte hartzea behar beste aldiz. Ohartaraztea eta diziplina ezartzea beharrezkoa da batzuetan; bekoz beko zuzenean jardutea, beti da beharrezko. Hurbilpen alderdi-anitza da kasu-langintzaren metodo bereizgarrietako bat; prozesuak biltzea, lotzea eta egokitzea. Baina kasuzko gizarte-langilea ez da bitartekari onbera bat. Egia da beste espezialista eta beste elkarte batzuen artean diharduela, bezeroaren beraren gizataldekoen artean, baina, jendea elkartzen duelarik, inola ere ez ditu eskuak garbitzen harreman horien ondorioak direla eta; aitzitik, ardura handia du beste guztiekin batera jardunbide bateratu bat aurkitzeko, lortu nahi duen gizarte-emaiza lortze aldera. Aipaturiko zerbitzu horiek guztiak edo gehienak konbinatzean datza maila profesionaleko kasuzko gizarte-langintza, ez bat edo bi konbinatzean.

Ezein kasu-langile ez dago behartuta beste inoren filosofia onartzera, baina nolabaiteko filosofiaren bat izan behar du. Filosofia horren oinarriak iradoki ditugu liburu honetan. Hala ere, oso ondo jabetzen gara laster beste batzuk agertuko direla, beharbada funtsezkoagoak. Iradokitako oinarriok, modu informalean berriro adierazteko, honako hauek dira:

- (1) Gizakiak elkarren mendeko dira. Ideia horri buruz, bada batasun espiritual bat, munta handikoa ideiarene esanahi osoaz hausnartu duten eta horren arabera bizitzen saiatzen direnentzat. MacIver irakasleak dioskunez, «gizartea ondoen antolatuta dago gizartekideen nortasuna ondoen sustatzen duenean». Alderantzizkoa ere egia da. Gizartearekiko harreman zuzenen bitartez eta ez bestela osatzen dugu geure nortasuna. Kasuzko gizarte-langintzaren artea ahalik eta gizarte-harremanik onenak aurkitzeko eta bermatzeko artea da.
- (2) Gizakiak desberdinak dira. Gizarte-programa benetan demokratiko batek aukeraberdintasuna sortzen du masa-ekintza zuzenaren bitartez, eta, aldi berean, pertsona desberdinentzat gauza desberdinak egiten dituen administrazio-politika bat eskaintzen du.
- (3) Gizakiak ez dira animalia mendeko eta etxekotuak. Gizakia beste animaliak ez bezalakoa izate horrek berak eskatzen du hark bere ongizaterako planak egiten eta aurrera eramaten parte hartzea. Norbanakoek beren nahi eta asmoak dituzte, eta ez daude eginak munduan rol pasiboa jokatzeko; hala jakatuta, hondatu egiten dira.

Beharbada, gizartearentzat baliabide bihurtu behar duten gizon eta emakumeek horrexegatik izan behar dute prestakuntza arduratsua bizitza deitzen diogun harreman-sare horretarako. Ezin dira trumilka egin. Pertsona sozial bat egiteak denbora eta arreta pertsonalizatua eskatzen duenez, familia da zeregin horretan hasteko ardura duen gizarte-instituzioa, eta familian saiatu ziren gizarte-langintzako lehen doikuntzak. Lantegia da beste leku apropos bat, kasu-langintzaren metodoak aldaketa onuragarriak ekar ditzan, nahiz eta langintza hori, han berriki hasi denez, oraindik ez egon guztiz garatuta. Kasu-langintza beste lanbide zaharrago baten lagungarri bihurtzen denean —hala nola hiru gizarte-instituzio hauetan: eskolan, erietxean eta auzitegian—, beste inon baino garrantzitsuagoa da profesionalak osorik errotuta egotea beren espezialitatean, beste espezialista batzuen lana osatzen saiatu aurretik. Gizarte-langintza, bere osoan, osatzen duten parteak baino handiagoa da. Parte guztiak daude nortasunaren zerbitzuan, baina modu desberdinetan. Kasu-langintzak norbanakoen eta gizarte-ingurunearen arteko doikuntza hobeak eginez lan egiten du; talde-langintzak, berriz, pertsonekin aurrez aurre baina banan-banan jardun gabe lan egiten du; gizarte-erreformak, masak hobetuz, propagandaren eta gizarte-legegintzaren bitartez; eta gizarte-ikerkuntzak, azkenik, aurkikuntza originalak eginez eta ezagunak diren egitateak berrinterpretatuz eta gizarte-langintzaren beste molde horiek erabil ditzaten jarduten du nortasunaren zerbitzuan. Kasu-langileak molde guztiez jakin behar luke zerbait —zenbat eta gehiago jakin guztiez, hainbat hobe—, eta bere zeregin berezira eraman behar luke jakintza hori, aipatu berri ditugun gizarte-langintzaren molde guztiak aurrera bultzatzeko moduan. Azkenik, nortasunaren garapena da kasuzko gizarte-langintzaren probarik handiena. Aldatu al da bezeroen nortasuna, eta norabide egokian aldatu al da? Nahi jasoago eta hobeen eta gizarte-harreman osasungarriagoen norabidean bideratu dira energia eta ekimena? Galdera horri baietz erantzuteko, ezinbesteko dira nortasunari begirune izatea eta pertsonengana, pertsona diren aldetik, giza interes beroarekin hurbiltzea. Baina baiezeko erantzunak kasu-langilearen beraren nortasuna ere garatzea dakar. Zerbitzua elkarrekikoa da, bien nortasuna baita garatzen dena.